

Pretenders, Sting eta Ruper Ordorika Donostiako Kursaalean izango dira

'Lehen hiru hilabeteetako egitarauak' 25 emanaldi inguru bilduko ditu

Erredakzioa / Donostia

Ruper Ordorikak abuztuaren 23an, Pretenders taldeak irailaren 12an eta Stingek urtarrilaren 19an eskainiko dituzten kontzertuak dira Donostiako Kursaaletako *Lehen hiru hilabeteetako egitaraua* izendatu duten ekimen kultureko aipagarrienetakoa. Horiez gain, Ainhoa Arteta, Baryshnikov baleta eta *Dancing and singing the blues* musikala ere ikusgai izango dira eraikin berriko auditorioan.

EGITARAU askotariko horri abuztuaren 19an emango diote hasiera, Euskadiko Orkestrak haurrentzako atondu duen kontzertu batekin. Abuztuaren 23an, berriz, emanaldi bikoitza izango da. Alde batetik, Ainhoa Artetak eta Euskadiko Orkestrak kontzertu bat emango dute elkarrekin eta, bestetik, Ruper Ordorika eta La Buena Vida pop-rock taldea ariko dira, Kursaaletako beste gune batean, bakoitza bere aldetik. Sting abeslari britainiarrek itxiko du programazio oparo hori, urtarrilaren 19an. Bizkitartean 25 saio inguru izango dira ikuskizunetarako propio prestatutako areto berrian.

Egitarauaren zutabe nagusietako bat Chrissie Hynde abeslari enblematikoak gidatzen duen Pretenders taldearen emankizuna izango da. Talde britainiarrek aurtengo musika berpizkunde sonatuenetakoa gauzatu du eta *Viva el amor* izenburua darman azken lana agertaraziko



Sting musikariak urtarrilaren 19an joko du Kursaal jauregian, San Sebastian egunaren bezperan.

JOHN MCCNICCO

dute Donostian, irailaren 12an. Hilabete bat beranduago, *Dancing and singing the blues* ikuskizun musikalak, genero horren indarberritzearen lekuko bilakatuko zaizkigu.

Arte eszenikoak aldiz, Baryshnikov Balletak azaroaren 27 eta 28an taularatuko dituen bi ikuskizunak ditu erakusgarri gorenekotzat. Balletari izena ematen dion dantzari famatua izango da lehenengo ballet ikuskizunaren protagonista nagusia. Baryshnikov, 70eko hamarkadan San Petersburgo utzi zuen Estatu Batuetan finkatzeko. Bertan, dantza klasi-

koaren mendeko idolo handienetakoa bilakatu da.

Musika Hamabostaldiak, Zinema Jaialdiak eta Euskadiko Orkestrak abono bidez egin ohi duen denboraldiak osatuko dute Kursaaletako lehen hiru hilabeteetako eskaintza kulturala.

Estreinaldi irekia

Datorren abuztuaren 23an inauguratuko dituzte Kursaaletako Kongresuen Aretoa eta Auditorioa ofizialki, eta Donostiako alkatea den Odon Elorzaren hitzetan ez da ekintza mugatu bat izango: «Donostiako sektore guztietako ordezkariak izango bai-

tira bertan». Hala, estraineiko ekitaldira 50 lagun bakarrik agertuko zirela zioen informazioa uxatu nahi izan zuen Elorzak. «Eguerdiko 12:00etarako iragarrita dagoen zinta mozketara 500 gonbidatu inguru azalduko dira. Kopuru horri ekitaldirako salmentan jarri diren 1.500 sarrerak gehitu behar zaizkio», argitu nahi izan zuen Donostiako alkatea. Irailaren 6an ospatuko den bigarren inaugurazio ekitaldian ere, prozesu berbera erabiliko dela azpimarratu zuen Odon Elorzak. Tenerifeko Orkestra Sinfonikoaren eta Donostiako Orfeoaren esku egongo da ekitaldia.

Segundo Urbanoren omenezko eguna prest dago, Bilbon

■ *Aurten Soriako banda zuzendari bat gonbidatu dute egun horretako kontzertuan aritzeko*

OHI DEN bezala, aurten ere Aste Nagusiko lehen igandean Urbano eguna ospatuko da Bilboko Arenalean. Egitaraua bitan banatuko da. Batetik, Arenaleko kioskoan kontzertua eskainiko du Bilboko Udal Bandak, eguerdiko 13:00ak aldera. Emanaldi honen bigarren zatia hasieran, Iñaki Azkuna Bilboko alkatea Aste Nagusiko zapia jarriko dio gonbidatutako zuzendariari. Horrez gain, zigarro-puru bat ere eskainiko zaio, arratsaldeko ikuskizunari begira. Arenal kioskoan, Aires Sorianos, *El camino real*, *James Bond 007* edota *Las Colondrinas* doinuak entzuteko parada izango dute hara hurbiltzen diren musika maitaleak.

Ohiko Urbano pasodoblea

Vista Alegre zezen plazan, eta zigarro puro hori eskutartean duela, gonbidatuak *Urbano Pasodoblea* zuzenduko du 18:00etatik aurrera, beste kantuen artean.

Egun honek daukan ohitura garrantzitsua, kanpotik etorritako zuzendari bat ekartzea da, honek Bilboko Udal Bandarekin batera Arenalean eta zezenplazan kontzertua eskeini dezan. Aurten Soriako Udal Banda zuzendaria ekarri dute Bilbora, Jose Manuel Aceña, alegia. 33 urtetako musikari hau, hiru urtez Soriako Udal Bandaren zuzendaria dihardu.

'Rigoletto' entzungai izango da Bilbon, irailean

■ *OLBERen jaialdiak Euskalduna jauregia izango du gune nagusitzat*

Erredakzioa / Donostia

IRAILEAN, Opera Lagunen Bilboko Elkarrekin antolatutako ohi duen musika klasikoko denboraldiak izar nagusi bat izango du aurtengo ekitaldian: Verdiren *Rigoletto* obra entzutetsua, hain zuzen ere. Irailaren 11n izango da emanaldi hori, Paolo Gavanelli baritono italiarra izar nagusi izanik.

Aurtengo ekitaldian, jaialdiko kontzertu guztiak Euskalduna Jauregian izango dira. Horixe izango da berrikuntzarik nabariena, ez bakarria ordea. Iazko denboraldiarekin alderatuz, ikuskitu aurtengoak: zortzi orotara. *Rigoletto*-ren ondoren honako obrak egongo dira entzungai eta ikusgai: Wagner-en *Das Rheingold*, Meyerbeer-en *Les*

huguenots, Rossiniren *Il barbiere di Siviglia*, Strauss-en *Rosenkavalier*, Verdiren *La traviata*, Donizettiren *La favorita* eta Massenet-en *Manon*.

OLBERen presidente den Francisco de Larrakoetxearen hitzetan «Bilboko denboraldiak duen maila handia lortzea ez litzateke posible izango, Bilbo eta inguruetako giza sustengurik gabe».